

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2023ko urtarrila | 016. zenbakia | 1,50€



EMOZIOEN IBILBIDEA

Brasilgo paradisuen bila

NEW ORLEANS | OX | CATHERINE DOMAIN | LESOTHO | UR JAUIAK | ARTIKUTZA

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoa bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruina distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruina distribution & services SL-en (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 016

2023ko urtarrila

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 165.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Gonzalo

AZURMENDI

ARGITARATZAILEA:

Astero.

Herritar Berri SLU.

Zazpi Haizetara

aldizkariaren lan

taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki

Agirrezabalaga

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +

Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso

Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A

20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@naiz.eus

TELEFONOA:

943 31 69 99

www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek

Inprimategia.

Zamudio



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

bidaiari 016

AURKIBIDEA



04 EMOZIOEN IBILBIDEA

Brasilgo Fortaleza hirian hasten da O Caminho das Emoções. Ozeano Atlantikoaren ertzean, bidaiariak paradisura eramaten dituen ibilbide mitiko hau gurekin zeharkatzea proposatzen dizugu. Toki baterako bidaia baino arimarako bidaia da; mila kilometro, bide eta pistetan barrena, parke nazional, hondartza eta herri intimo eta beroen artean.



30 CATHERINE DOMAIN

Hendaiaiko Ulysse liburu dendan elkarrizketatu dugu liburu saltzailea, bidaia-literaturan aitzindaria.



36 NEW ORLEANS

AEBetako hegoaldeko geltoki garrantzitsuenetakoa: Mississippi eta Amstrongen lurraldea, historia eta naturaz betea.



44 ARTIKUTZA

Nafarroa iparraldeko txoko magikoa. 3.700 hektareako eremu babestua. Iberiar penintsulako lekuri hezeena.



54 **BERTATIK BERTARA: EGIN PLANAK!** Iruñea beltza, espiotza eta krimenaren munduan barna, Azpeitiako bertso eguna, Txotx denboraldiaren hasiera: sagardo berriaz gozatzeko aukera paregabea... 56 **HIRIAK MOTZEAN** Lesothoko Kome leizeetako azken biztanleak 60 **MUNDUAN PASIERAN** Sonorako kaktusak, Tutankamon, Sudango rastafariak, marrazoen arrantza, iglu-hotela...



URIK GABE

Poopo aintziraren desagerpena, Boliviako kultura baten gainbehera

Uruak «uretako jendea» dira. Flamenko eta beste hegazti batzuen ehizan eta arrantzan iaioak, mendeetan bizi izan ziren irla flotagarrietan eta ihizko baltsetan, harik eta itsasertzean finkatu ziren arte. Felix Mauricioren aitona-amonak Puñaca Tinta Mariara joan ziren bizitzera 1915ean, Poopo aintzirak txabolak urpean hartu zituenean. «Arrainak handiak ziren. Arraintxo bat, hiru kilo», gogoratzen du Mauriciok, 82 urteko arrantzale erretiratu honek, gosea arintzeko koka hostoak mastekatzen dituela. Totorazko kapela du –txalupak egiteko erabiltzen den ihia–, eta pontxo marraduna darama, duela milaka urtetik Perun eta Bolivian bizi den uru herriak erabili ohi duena. «Hemen zen lakua. Azkar lehortu da», dio, orain basamortua den lurrean belauniko. Poopo 3.500 kilometro karratu hartzen zituen aintzira gazia zen 1986an, eta zeharo lurrundu zen 2015eko amaieran.

Ikerketa zientifikoen arabera, klima aldaketak eta nekazaritza eta meatzaritzarako ur erauzketek bat egin dute Boliviako goi lautadan, itsas mailatik 3.700 metrora. Azken urteotan, euriak ur xafla mehe bat eratu du berriro leku batzuetan, baina sakonera txikiegia du nabigatzeko, eta ia ez dago ez arrainik ez hegaztirik. Aintzirarik gabe, uruek beste lanbide batzuk ikasi dituzte bizimodua ateratzeko: igeltseroak, meatzariak edo nekazariak dira, kinoa edo beste labore batzuk landatuz.

Uruek ez dute lurrik: auzoek, aimarek, ardura handiz zaintzen dituzte duela urte batzuk Estatuak emandako jabetza tituluei esker bereganatu zituzten eremuak. Boliviako Gobernuak, bestalde, gainerako lurzatiak uruen artean banatzeko asmoa dauka. Emankorrak gutxi direla diote, ordea. Nazio Batuen Erakundearen arabera, 2050. urterako 2.700 eta 3.200 milioi pertsona inguru egongo dira ur eskasia duten eremuetan. Aizor RALDES





BRASIL

Emozioen ibilbidea





Brasilgo ipar-ekialdean, Ozeano Atlantikoaren ertzean, bidaiariak paradisura eramaten dituen ibilbide mitikoetako bat dago. Izenak azaltzen digu bere izana. “Emozioen ibilbidea” (O Caminho das Emoções), toki baterako bidaia baino arimarako bidaia bat da; mila kilometro, bide eta pistetan barrena, parke nazionalen, munduko ondareen, hondartzen eta herri intimo eta beroen artean.

Testua: **Ana Isabel VEGA** Argazkiak: **Gonzalo AZURMENDI**

Ibilbidea Fortaleza hirian hasten da. Ceara, Pinaí eta Maranhao estatuak zeharkatu eta, astebetetz 4x4 batean ibili ostean, Sao Luis hiriraino iritsiko gara, helmugara. Orduan ohartuko gara paradisia atzean utzi dugula eta malenkoniaz gogoratuko ditugu betiko barruan geratu zaizkigun bizipen horiek. Esperientzia horietako lehenak Jericoacoara du izena. Motxileroei 1985. urtean aurkitu zuten arte arrantzaleen herrixka xumea zen. Beti gertatzen den bezala, leku hau lur agindu sekretu izatetik ametsetakoko leku izatera pasatu zen “Washington Post”-ek hango hondartza munduko hamar hondartza ederrenen artean sartu zutenean.

Bere harea liluragarrietan (Ceará estatuari Argiaren Lurra esaten diote), “jangada”-k nabarmentzen dira. Arrantza-ontzi tradizionalak dira, eta horien bela triangeluar eta koloretsuak mundu osoko windsurfer eta kite-surfer-en haize-oihailekin batera ibiltzen dira; izan ere, hemengo haizeen indarrak erakarrita horietako asko bertaratzen dira.

Tokiak, neurri batean, lurrezko pistari esker eutsi dio bere izaerari, horrek eragotzen duelako jende gehiegi etortzea. Izen ahoskaezina duen herri honetan, bertakoek, beren jatetxe eta negozioekin, beso zabalik hartzen di-





tuzte kirolariak, neo hippyak, jende “polita”, Brasilgo turismo-familia zoriontsuak... Arratsaldero, tribu horiek guztiak duna handira joaten dira eguzkia agurtzera, izozki-orgatxoek, edariek, jauzi eta oihuek lagunduta.

Hori jendearen zalaparta! Gaua iristen denean, aldiz, haizea bakarrik geratuko da, eszenatoki bihurgunetsu eta aldabera hori eraldatzen duen ko-reografo aparta. Hala, hurrengo egunsentira arte hondarra garbi utziko du, oinatzik gabe.

Bidaia aurrera jarraitzeko unea da. Etapa berriaren bizitasuna handitzen doa, 4x4 ibilgailua zehaztu gabeko hareazko pisten artean aurrera doala. Horietan bidelagun ugari aurkituko dugu, lur orotako buggyetan doazen gazteak, dibertsio eta abentura bila dabiltzanak.

BAKARTASUN SENTIPENA Bideak ur kainuek eteten dituzte, non ontzi lau txiki eta prekarioek ibilgailua kargatzen duten, pertika baten bidez beste ertzean kokatzeko, gero eta bakartasun sentsazio handiagoa sortuz. Azkenik, transbordadore batean Coreaú ibaia zeharkatuko dugu, Camocin

Erreportajea irekitzen, Por do sole duna ilunabarra, Jericoacoara natur parkean. Hurrengo orrian, Lençóis Maranhenses natur parkeko duna. Lerro hauen gainean, Maranhão eta Jericoacoara natur parkean egindako irudiak. Azken orrian, Vassouras, Lençóis Maranhenses eta Jericoacoara natur parkea hurrenez hurren.



herrira iristeko azken oztopoa gaindituz. Hemen giroa desberdina da; motxeroak ere, Lonely Planet-a duten gazteak, paseko bisitariak dira.

Bada sorpresarik ere, hala nola merkatua bisitatu eta ozeanoen hondoan bete-betean murgiltzea, Julio Vernerren nobela batetik ateratakoak diruditen arrain izugarrien eta karramarroen artean... Bidaiaren une horretatik aurrera, krustazoen tenazak obsesio bihurtuko zaizkigu. Milioika egongo dira mangladiz betetako ibaiertzetan, bereziki Parnaíba ibaiaren bokalean. Hori dugu hurrengo helmuga.

1.500 kilometroko ibilbidea egin ondoren, Parnaíba abaniko izugarria osatzen du itsaso irekian dagoen Ameriketako delta bakarrean, eta, Mekong eta Nilo ibaienekin batera, munduko handi eta ederrenetako bat da. Hor autotik jaitsi, batel edo txalupatxo batera igo eta mangladien, kanalen eta ur-labirintoen artean nabigatzea tokatzen da. Benetako basamortuak diruditen duna miragarritz inguratuta gaude. Ia ezinezkoa da beste inor topatzea.

Emozioen ibilbidea bidaiariaren barrenean sartuz doa, gero eta gehiago, paisaia zehar Jorge Amadoren hitzak garraiatuz: “Mundua hemen bezalakoa da, ulertezina eta ustekabez betea”. (“Gabriela, cravo e canela” eleberritik).

“MARANHÃO, TURISMO EKOLOGIKOA” Ibilbidea Maranhão estatuan sartzen da, eta errepide gainean dagoen panel handi batek eman digu ongi-torria: “Maranhão, turismo ekologikoa”. Mugarik gabeko lur eremu zabal honetan aurkituko dugunaren iragarpena da. Berriz ere asfalto desagertzen da eta lerro amaigabea bata bestearen atzetik agertzen diren hondartzetan aurrera doa 4x4 ibilgailua.

Mareak zehazten du bidea; zenbat eta beherago egon, orduan eta lauagoa eta azkarragoa izango da ibilbidea. Tarteka, Cabureren arroka labirintoak edo zuhaitz enborrak saihesten ditu bideak; horiek, noski, Cabureren ertzean hazitakoak izango dira. Hareatza izugarri handi horretan bainulari bakoitzak kilometroak ditu bakar-bakarrik egon nahi izanez gero.

Novo River eremu babestuak eteten du kosta-lerroa. Txalupa alokatu eta hango fauna aberatsa eta ibaiertzetako asentamendu xumeetako bizitza ezagutuko dugu. Horietakoren batean lehorreratzear, beti aurkituko dugu txosna-denda txikiren bat freskagarri bat hartzeko, tximinoren bat bananaren baten truke gure kamera aurrean jartzen den bitartean.

Hainbeste argazki atera ondoren, kezka dugu ez ote ditugun beteegi kameraren eta sakelakoaren txartelak, baina bidaia gertu samar dago bukatara iristetik, Lençóis Maranhenses Parke Nazionalera heltzeaz gaude eta. Tontor bat eskalatzen denean bezala, emozioz betetako errusiar mendia dirudien ibilbide honen une gorena izango da.

Azkena eta ikusgarriena den duna-basamortura sartzeko atea Barreirinhas udalerria da. Preguiças ibaian barna egun luzez belaontziz bidaiatuta bakarrik irits zitekeen garaiko xarmari eusten diote biztanleek. Esan liteke

gaur egun ez dela ezer aldatu; hurrek nasetatik ibaira jauzi egiten dute, ontzi distiratsu eta koloretsuak palmondoek eta junglak harturiko natu-ragunean gurutzatzen diren bitartean.

Ilunabarrean, ibaiertzean, gazteak futboleak eta boleiboleak jolasten dira, eta hareatza horretatik bertatik itsas pasealeku bat sortzen da, non egu-rrezko pantanalek ur-ibilguari lekua kentzen dioten eta etxeetatik, taber-netatik eta musikatik banantzen duten. Bizimodu lasaia aurkitu dugu, giro ezin hobea Brasilgo plater nagusia afaltzeko: “moqueca”, alegia, ti-pula, piper, tomate, martorri, arrautza eta abarrekin egindako arrain el-tzekaria.

AZKEN PARADISUA Goizean azken paradisia dugu zain, Lençois, hots, harea oso zuriko duna-eremu neurrigabea. Dunek euri-urari eusten diote eta beren artean urmaelak sortzen dira. Ilargi-erdiak osatzen dituzten ha-reazko mendien segida horrek, zerutik begiratuta, eguzki distiratsuen eta zeru urdinaren azpian aurrera doan olatu multzoa dirudi.

Ibilgailua aparkatu, oinez duna erakargarrienera gerturatu, tontorrera igo eta geure burua bertatik biraka botatzea falta zaigu; baina buruz salto egi-tekotan, hobe oinarrian laku bat dutenetako bat aukeratzea, hondartza bal-itiz bezala, baina ur gezako marinelentzako bainuontzi handi baten parekoa.

Ilunabarrean, harea gorritz tindatzen da eta eguzkia airean laranja bihur-tuta desagertuko da. Une horren ondoren, mundua berriz martxan jarri eta parkeko ibilgailu guztiek lasterketa bati ekiten diotela dirudi... Helbu-rua Preguiças ibaiko transbordadorera lehenbailehen iristea da, jende pi-laketak izaten baitira han.

Ez dago kezkatu beharrik. Bertakoek postuak jartzen dituzte, bisitariak txanda noiz iritsiko zain dauden bitartean oroigarriak edo arropa eros de-zaten, izkira batzuk jan ditzaten edo zerbait edan, hemen ez baitago Wi-Fi-rik. Dena da erraza eta sentsuala gauean ibaiaren alde honetan.

Maranhao estatuko hiriburura, Sao Luisera, iristea besterik ez da geratzen. Uharte handi batean dago eta Eltxoen Itsasartearen gaineko bi zubitatik baino ezin da bertaratu, noranzko bakoitzean bat.

Frantsesek sorturiko Brasilgo hiri bakarra da; 1612an hain zuzen. Leku his-torikoa Unescoren Mundu Ondarearen zerrendan dago eta arkitektura ko-lonialeko 3.500 eraikin baino gehiago daude.

Zalantzarik gabe, plazer handia da zutabe, mosaiko eta azulejuak dituzten etxe horien artean paseatzea, iragan distiratsu hura sentituz; baina ekidi-nezina da itsasoa bazter guztietatik ikustea.

Jericoacoaratik Lençois-eraino duna eta duna artean saltoka emandako ilunabarretara itzultzen gaitu gure gogoak. Emozioen Ibilbidearen parte dira horiek dagoeneko, bihotzaren barrenerainoko bidaia izan den horren parte.

**Camocinen bada
sorpresarik ere,
hala nola merkatua
bisitatu eta
ozeanoen hondoan
bete-betean
murgiltzea, Julio
Vernereren nobela
batetik ateratakoak
diruditen arrain
izugarrien eta
karramarroen
arte**



OX

Zetaren Bidearen ekinokzioa

Testua eta Argazkiak: **Xabier BAÑUELOS**

Kirgizistaneko bigarren hiri garrantzitsuena da Ox. Leku lasaia da, baina behialako Zetaren Bidearen erdigunea izan zen eta historia puri-purian azaleratzen da bertan. Bazar koloretsutik hasi eta Ravvat Abdullkhana meskitaraino, Leninen estatua monumentaletik Sulaiman Too muino sakraturaino, Ox askotarikoen bilduma bat da, hango biztanleria osatzen duen nahaspila etnikoak beti arnasberritua.



Orrialde honetan, emakumeak Bel-Tash harkaitzaren gainean irristatzen, gaitzak sendatzeko, eta fededunak Dom Babura otoitz gelan sartzen. Eskuinean, hiria Sulaiman Too muinotik ikusita.

Kirgiz Jeri” abestiaren bertsoek laguntzen diote ordenagailuaren teklatuari zarrastada geldoan. Salamat Sadikovaren ahots hunkitu eta nostalgikoak laztanduta aletuz doaz kirgizen lurraldearen dohainak, kantu bete argi eta edertasun. Haren hatzek komuzaren hariak joz trebezia handiz erauzten dituzte Kirgizistaneko ereserki herrikoitzat hartzen den baladaren notak. Sadikova musikaren ama da bere herrialdean, maitea eta errespetatua hein berean eta ezbairik gabe. Bidelagun hoberik ez dugu aurkituko Ferganako haraneko ekialdeko muturrera, Tien San eta Pamir Alay mendilerroen erdira, eraman gaituen bidaia honen soinu banda osatzeko. Izan ere, Sadikova bera ere hegoaldeko lurretan jaio zen, Kizil Joi izeneko herrixkan, Batken “haizearen hiriaren” ondoan, guk jomugan dugun Ox “hegoaldeko hiriburutik” gertu.


Ox hobeto ulertzeko, beharrezkoa da herrialdeari buruzko datu batzuk behintzat aintzat hartzea. Kirgizistan Erdialdeko Asian kokatutako sobietar errepubliketako bat izan zen. Gaur egun mugakide ditu Kazakhstan eta Txina erraldoiak eta Tajikistan eta Uzbekistan xumeagoak. Horiek horrela, biztanleriaren gehiengoa osatzen duten kirgizei beste gutxiengo ugari baten zaizkie; jendetsuak batzuk, hala nola uzbekoak eta errusiarrak eta txikiagoak beste batzuk, esaterako, tajikak, uigurrak, kazakhak, dunganak,



ukrainarrak... guztira laurogei talde egiteraino, beren ohitura eta hizkuntzekin. Herrialdean bi hizkuntza ofizial daude: errusiera –herrialdeko benetako lingua franca– eta kirgizera, hizkuntza turkikoa, eslaviarraren aldean lekua galtzen joan zena, baina gutxinaka-gutxinaka ospea eta hiztunak berreskuratzen ari dena.

Herrialdeak historian bete duen lekua ez da nolanahikoa. Zetaren Bidearen erdian zegoen. Horrexegatik, hain zuzen, irrikaz begiratzen zioten Asia Erdialdeko potentziek, eta igarobide ez ezik truke ekonomiko eta kulturalerako lurralde ere bihurtu zen. Geografia menditsu, gorabeheratsu eta gogorra nagusitzen da, baina ataurrean du Ferganako harana, hau da, Asia erdialdeko ibar emankorrena, Narin ibaiak zeharkatua, eta ekialdetik bertara iristeko edo handik ekialderantz abiatzeko atea Ox hiria zen.

NORTASUN HANDIKO HIRIA Bertakoei izugarri gustatzen zaie bisitariak zur eta lur uztea, harro adieraziz beraien hiria «Erroma bera baino zaharragoa» dela. Eta arrazoia dutela onartu behar, Erromaren sorrerako data ofizialari erreparatzen badiogu (K.a. 753. urtea); izan ere, Oxen historia gutxienez beste 3.000 urte atzerago iristen da, nahiz eta VIII. mendera arte ez zuen hartuko bide komertzial ezagunari lotutako protagonismoa, karabanen joan-etorriarekin batera haziz eta haziz. Mendeak joan eta mendeak etorri, Zetaren Bideak gainbehera egin zuen, eta



ondoren Oxek bere oparoaldiak eta pattalaldiak izan zituen. Horrela, XX. mendea iritsi zen arte.

Sobietar garaia benetan injekzio suspergarria izan zen hiriarentzat. SESBen erorialdiarekin, ordea, kolpe gogorra jasan zuen, eta zenbait hamarkadatan ilunpean egon zen, beti Bixkek hiriburuaren itzalean. Gaur egun, erabat lehengoratu ez bada ere, badirudi beste loraldi eder bat asmatzea lortu duela. Azken batean, herrialdeko bigarren hiri garrantzitsuena da, bai biztanle kopuruagatik eta bai bere potentzial ekonomikoagatik, Uzbekistaneko mugatik bost kilometro eskasera dagoelako eta eskualdeko nekazaritzako ekoizpen gune nagusia delako.

Mugaldea den heinean, hiriko etnia aniztasuna nabarmentzekoa da. 300.000 hektareako lurraldean kirgizak eta uzbekoak proportzio antzeratsuan banatzen dira, eta errusiar, turkiar, tajik eta tartaro taldeak ere badaude gutxiengoan. Horrek zenbait tirabira ekarri izan ditu iraganean, baina gaur egun lasai daude kaleak. Eta Kirgizistanen nagusitzen den islam erlaxatuak hemen jite pixka bat kontserbadoreagoa hartzen badu ere, nahiko hiri bizia da, eta horretan laguntzen du, zalantzarik gabe, unibertsitate hiri izateak, bertan baitauka egoitza Oxeko Unibertsitate Estatalak, herrialdeko bigarren garrantzitsuenak.



**Bere iragan
hurbilaren eta
antzinako
historiaren arteko
elkarbizitzaren
lekuko da, mosaiko
sobietarraren eta
arkitektura
islamikoaren
forma duen
metafora gisa.**

SULAIMAN TOO MUINOTIK BAZAR HANDIRA Historia hain zabala izan arren, ez da hiri monumentala eta ez du iraganeko aztarna esanguratsurik. Sobietar arkitektura nagusitzen da nolabaiteko munta duten eraikinetan. Hala ere, bestelako zenbait eraikin ere aurkituko ditugu, hala nola Ravvat Abdullkhana meskita, XVI. mendekoa, edo Asaf Ibn Burhyia mausoleoa, XVII-XVIII mende artekoa, biak ala biak Sulaiman Too harrizko mogotearen oinpean. Ehun metrotik gorako mendixka, bere bost tontorrekin, etxe orratza bezala zutitzen da erabat laua den hirigunean. Hiriko erakargarri nagusia da muino hori. Gizateriaren ondare izendatu dute, eta benetan berezia da lekua, bere edertasunagatik eta balio enblematikoagatik.

Leku sakratutzat hartzen dute. Sulaiman Too izenak “Salomonen tronua” esan nahi du, eta bertakoen kondairak dio han dagoela haren hilobia. Gainera, tradizio batzuek diote hortxe idatzi zuela Zaratustrak “Avesta”, zo-roastrismoaren testu sakratuen bilduma; budismoaren hedapen tokia ere izan zen, baita leku sufi garrantzitsu bat ere. Are gehiago, Mahoma profetak han otoitz egin zuela ere esaten da, eta hortaz, islamiarren peleginaje gunea ere bada.

Horiek guztiak bere bizkarrean dituela, ia edozein gaitz sendatzeko gai da Sulaiman Too mendia, eta leku miraritsuz beteta dago. Tamchy-Tamar



Goian, errementariak Bazar Handian labanak egiten. Eskuineko irudi txikietan, Sulaiman Tooren oinarrian aurkitutako petroglifo bat, eta gozokiak merkatuan. Lerro hauen ondoan, Haitzuloko Museoaren kanpoaldea, bisera itxurako arku handia ikusgai dela.



“itoginen leizeak” begietako gaitzak sendatzen ditu; Kol-Tash hobian eskua sartu behar da mesedeak eskatzeko; Ene Bashik ugalkortasunaren koba da; eta denetan dibertigarriena Bel-Tash da, harkaitzean txirrista tanke-rako kanala baitago, eta handik behera irristatzen dira adin orotako emakume zein gizonak barneko organoetako gaitzak prebenitzeko. Sulaiman Took balio historiko handia dauka, eta Ptolomeok bere “Geografia” lanean Zetaren Bidearen erdialdea zelakoan aipatzen zuen “Harrizko Dorrea” izateko hautagai nagusia da.

Mendian beste hiru interesgune ere badaude. Batetik, oinarriko petroglifoak, K.a. 1500. urtearen eta K.o. V. mendearen artean datatuak. Bigarrenik, Dom Babura: Tamerlan konkistatzailearen ondorengoa izan zen Zahir-ud-din Mohammad Baburrek, gerora Indiako Mogol inperioaren sortzaileak, 1497an, gazte zela, eraiki zuen otoitz gelaren berreraikuntza. Eta hirugarrenik, Haitzuloko Museoa: mendiaren barnealdean zulatua dago, eta kanpotik begiratuta zementuzko arku bitxi bat ikusten da, XIX. mendeko poke kapela baten gisakoa. Beste arrazoi bat ere badago Sulaiman Toora igotzeko: hiria- ren eta haren inguruko lurren gaineko ikuspegi zoragarria.

Behera itzulita, hiriko kaleetan ibili gara Ox plazara iritsi arte. Legebiltzar- raren aurrean Leninen estatua ahaltsuak harrera egin digu; diotenez, Er- dialdeko Asiako handienetakoa da. Ezkonberriak hona etortzen dira Merim parkeko Maitasunaren Lorategian eta Toktogul eta Enenin köz jaşi (amaren malkoak) parkeetan argazkiak egitera. Hiriko berdegunerik ederrena era- tzen da bertan, Ak Buura ibaiaren ondoan.

Nolanahi ere, Oxeko beste iman garrantzitsua Bazar Handia da. Hara iris- teko marshrutka hartzen badugu –taxi kolektibo gisa funtzionatzen duten minibus edo furgoneta–, Jayma Bazaar delakoan utziko gaituzte, hau da, ipar-ekialdeko atean. Baina azoka askoz harago hedatzen da ibaiaren bi er- tzetan, labirinto gisako kalekhen amaraun koloretsu eta korapilatsuan. Dendaz eta postuz gainezka, jende asko pilatzen da preziorik onenak bilatu nahian. Erdialdeko Asiako aire zabaleko bazarrik handiena da, halaxe izan da azken 2.000 urteetan. Berez, Zetaren Bideko azokarik handiena izan zen, puntu neuralgikoa, han gurutzatzen ziren karabanak eta produktuak; era guztietako hazpegiak eta hizkuntzak zituzten merkatariak saldoka iris- ten ziren ekialdeko eta mendebaldeko munduetako produktuak saleros- tera, eta gero berriro bideari lotuko zitzaizkion beren jomuga urrunekoetara iristeko, batzuk eguzkia sortzen den lekuan eta besteak ez- kutatzen den lekuan.

Gaur egun hara iristen direnak ez dabilta Txinako bazter ezkutuenetan men- deetan zehar gordetako sekretuarekin ekoitzitako oihal preziatu eta misterio- tsuaren bila. Nahi izanez gero aurkituko dugu, ordea, beste edozer aurkituko dugun bezala, behar izan ala ez izan: zapore guztietako espezieak, barazkiak eta frutak, edo arropak edo ibilgailuentzako gauzak edo zaldi zelak eta gana- duarentzako ferrak, edo oihalak, bitxiak eta musika tresnak, edo sukaldeko tresneria, fruitu lehorrak, gozoak, tea eta lepyoshka –ogi biribil zoragarria, tan- doorean erre–, edo eskuz landutako aizto uzbekoak. Orogen gainetik, ordea, jendea aurkituko dugu, jende abegitsu eta lagunkoia, atsegin handiz gurekin argazkia ateratzeko prest, irribarrea ahoan dutela.

GIDA PRAKTIKOA

BESTE INTERESGUNE BATZUK

Museo multzo historiko- arkeologiko nazionala, Sulaiman Too muinoko meskita, hiru solairuko jurta, Navoi parkea – agureak xakean jokatzen duten lekua– eta abere azoka.

ZENBAT EGUN

Ox ez da handia, ez da hiri monumentalak, baina gutxienez hiru egun behar dira lasai ibiltzeko eta azokak ezagutzeko.

NOLA IRITSI

Bixkek hiriburutik hegazkinez nahiz autobusez irits zaitezke Oxera. Baina herrialdean barrena bidaiatzeko autoa alokatu nahi izanez gero, erreserba askoz lehenago egin behar da, alokairuko ibilgailuak oso urriak direlako.

NON OSTATU HARTU

Ez da garestia, baina gutxitan betetzen dira europar estandarrak.





MUTURREKO TOKIAK

Bada edertasunik gogortasunean

Testua **Gaizka Martinez** Argazkiak Getty Images eta AFP

Lehorte eta euriteak, tornado eta zikloiak, sumendien eztandak... Lur planeta muturreko fenomeno atmosferiko eta geologiko anitz eta ugariren gunea da. Aldaketa handiak edota bizitzeko egoera zailak dituzten eremuetara egokitzen ikasi dute izaki bizidunek, baita gizakiek ere. Horietako batzuen alderik ederrena bilatuz, muturreko fenomeno nagusiak ematen diren eremuen inbentarioa egin nahi izan dugu erreportaje honetan.



Oymyakon

Siberiako (Errusia) Oymyakon herriak 900 bat biztanle ditu eta populatutako lekurik hotzenaren langa hautsi zuen 1933. urtean, termometroak $-67,8^{\circ}\text{C}$ -ra jaitsi zirenean. Bederatzi bat hilabeteko neguak izan ohi dituzte Oymyakonen eta, halako egoerara egokituta, eskolak -55°C azpitik daudenean baino ez dituzte ixten. Arrantza da biztanle gehienek ogibidea, baina azken urteotan bisitari ugari jaso dituzte eta turismoak gora egin du. Harrapatu eta handik 30 segundora arrainak izoztu egiten dira, autoen gasolina edota esnea izoztuta egoten dira eta komunek paperarekin ere adi ibili behar dute tenperatura egokian ez badago. Dena dela, Errusian bertan ere, Antartikan, 1957an sortutako Vostok zientzia-estazioak du munduko tokirik hotzenaren errekorra, $-89,2^{\circ}\text{C}$, baina han ez da herririk.

Heriotzaren Bailara

Historikoki, Mojave basamortuko Heriotzaren Bailarak (Kalifornia, AEBak) leku beroenaren domina eraman duen arren (56,7°C-ra iritsi zen merkurioa 1913ko uztailean), zientziaren garapenak eta estazio meteorologiko berriek errekor hori bertze bi tokitan hautsi dela frogatu dute: Lut (Iran) eta Sonora (Mexiko) basamortuetan. Azken horretan, 80,8°C-ra iritsi dira berriki eta Irangoa bizitzeko lekurik desagokiena da, NASAko adituen arabera. Bisitatzeko egokiena Heriotzaren Bailara da.



Mawsynram

Hegoaldetik iparraldera busti-busti doan hodei andana geldiarazten du Himalaia mendilerro garaia, hego isurialdeko Khasi mendi-gainetan eraikitako Mawsynram Indiako herria (1.400 metro) munduko hezeena bihurtuta: urtean 12.000 litro metro karratuko media (1985ean 26.000 litrorara iritsi zen). Hezetasun ehunekoaren langa ere hautsia du: %83. Nohalikalai eta Mawsmi ur-jauziak eta azken horren izen bereko kobako estalagtitak dira erakargarri turistikorik behinenak.





Kebili

Tunisia erdialde-hegoaldeko basamortuko hiria da Kebili, Nefzaoua eskualdeko nagusia. Ekialdeko hemisferioan inoiz erregistratu den tenperatura errekorrik altuena (55°C-koa, 1931ko uztailaren 7an) duen arren, bizitza ugari izan da Afrikako oasirik zaharrenetakoa den honetan, handik gertu aurkitu baitira duela 200.000 urte inguruko giza aztarnak. Historian hurbilago, Erromatar Inperioaren parte ere izan zen inguru hau. Oasiak, dunek eta palmondoek bazter antzuok edozeinendako erakargarri egiten dituzte ezbairik gabe, baita egun pare baterako antolatutako txango baterako ere: Chott el Djerid Saharako gatz-lautadarik handienera, kasu.



Ternua

Baleen atzetik gure arrantzaleek historikoki egin dituzten bidaiaak direla eta, Terranova (Kanada) aski ezaguna da gurean. Han egiten dute bat Labrador eta golkoaren itsas-korrante biek eta han sortzen dute sekulako bioaniztasuna. Baina, aldiberean, bi korranteek duten tenperatura ezberdintasunak munduko laino gehien eta trinkoen gune egiten dute Newfoundland deritzon herrialde hau, kostaldeko paisaia jada erakargarria are erakargarriago eginaz. Kanadako Vancouver hiriak du, ostera, munduko hirien artean, laino egun gehien eta laino lodienaren errekorra.



Danakil depresioa

Jendea bizi den tokien artean, batez bertzeko temperatura altuenaren errekorra du Etiopiako Danakil depresioak: urtean 34,6°C. Itsas mailaren azpitik 120 metroko altueran dago eta Dallol sumendi aktiboaren erupzioek tenperatura gehiago igotzen dute. Beste mundu batean gaudela ematen badu ere, eskualde honetan jendea bizi da, bizimodu nomada izaten duena eta garraiorako gameluak erabiltzen dituen. Danakil basamortua bisitatzeko, 4x4 txango bat egin daiteke inguruotako agentzietako batekin. Mekeletik abiatuta bi egunetan egin liteke, baina ohikoena hiru egunetan egitea da, Erta Ale sumendi bikainera ere igo ahal izateko.



Hawaii

Ortzadarra Hawaii irlaren marka bihurtu da: autoen matrikulan, kirol taldeetan, enpresetan... eta, noski, zeruan agertu ohi da. Hain da errepikakorra fenomeno atmosferiko hau, ezen bertako kulturen eta hizkuntzan, hawaiieraz, hamaika hitz eta esaldi baitute hari buruz hitz egiteko. Lurrarekin bat egiten duten ortzadarrak “uakoko” izendatzen dituzte; bertze batzuk “kāhili” dira; ia ikusten ez direnak, “punakea” edo ilargi-ostadarrak, “ānuenu kau pō” (bai, halakoak ere existitzen dira!). Arrats parteak dira fenomeno ikusgarri honetaz gozatzeko unerik onenak; eguzkia zerumugatik 40 bat gradura egon behar baitu.



Atacama

Irailetik azarora, sei-zazpi urtean behin, Atacamako basamortuak (Txile), “munduko basamorturik lehorrena” izenaz ezaguna denak, gure begirada izozteko gai den fenomeno ikusgarri bat hartzen du bere lur ustez idorretan: eskualdean ekaitz handiak jazo direnean, basamortuko zoruak milaka lore koloretsuri egiten die bide. Loreetako batzuk guanakoen hankak eta zelestinak dira, Serena iparraldearen eta Antofagasta hegoaldearen arteko paisaia kolore anitzeko abaniko ikusgarritz betetzen dutenak.



Testua
Roge BLASCO
 Argazkiak
Oihan BLASCO
 eta **Catherine DOMAIN**



Urteen poderioz, erritual bihurtu da Hendaia-ko kasino zaharrean Ulysse liburu denda bisitatzea. Atsegin da Catherine Domaini besarkada bat ematea, instituzio bat baita liburu saltzailea, mundu osoan aitzindaria izan baita bidaia literaturan eta kartografian espezializatutako liburu denda bat irekitzen. Munduari bi bira eman ondoren, 1971n, Parisko Saint Louis uhartean, bidaia liburuei eta herrialde ezberdinei eskainitako denda zabaltzen zuen. 2007an, udak Hendaian igarotzea erabaki zuen, bere liburuen ondoan, eta lokal bikaina ireki zuen hondartza aurreko estilo morisko eta orientalistako 1884ko kasinoan, olatuei eta han irristatzen diren surflariei so.

Catherine Domain 1941eko apirilaren 23an jaio zen Mascaran (Aljeria). Gazte-gaztetatik hainbat herrialdeetako ikastetxeetan egondakoa da: 10 urterekin Ingalaterran bizi izan zen, 18 urterekin Kalifornian, eta gero Genevara joan zen hizkuntzak ikastera. Harrezkero etengabe bidaiatzen ibili da. Munduari bira bi eman zizkion, uda batzuetan Pazifikoko uharteetan nabigatu zuen haurtzarora itzuli zen arte, Hendaian uda pasatzera, non bere bi ahizpa bizi diren.

Catherine Domain Bidaia literaturaren aitzindaria

«Pentsatzen nuen: mundua hain desberdina bada, dena ikusi behar dut»

Bere bidaiei eta Ulysse liburu dendaren sorrerari buruz galdetu diogu.

Zergatik Ulysse liburu dendak, Parisen egoitza izateaz gain, Hendaian ere irekitzen ditu ateak udako denboraldian?

Familia kontu bat da. Aitaren aldeko aitona-amonek Espainian lan egiten zuten eta urtero Hendaia igaro behar zuten. Behin, autoa matxuratu zitzaien. Garai hartan, XX. mendearen hasieran, tailerreko lan horiek egun asko irauten zuten, eskuz egin behar ziren piezak edo pazientziaz itxaron behar zen bidali arte.

Aitona hemen agertu zen, kasinoan (orduan joko areto bat zen, orain Ulysse liburu denda). Jolastera etorri zen eta den-dena galdu zuen gizon baten ondoan eseri zen. Hendaia hondartzaren parean zegoen etxea saldu behar izan zuen gizonak eta aitona erosi egin zion. Une horretatik aurrera familia osoa oporretan etortzen hasi zen udan. Haurra nintzenetik egiten nuen, eta hiru hilabete ematen nituen hemen. Gero ez hainbeste, 15 urte nituenetik munduko hainbat lekutara bidaiatu baitut.

Ingalaterrara joan zinen ikastera, eta gero Kaliforniara. Hura izan zen zure gaztaroko bizitza nomadaren aitzinsolasa?

Hamar urterekin bidali ninduten gurasoek Ingalaterrara eta horrek independentzia eman zidan. Zoragarria izan zen, ingelesa musika iruditzen zitzaidan. Gero, 16 urterekin, beka bat eman zidaten Estrasburgoko nire eskolan, Kalifornian urtebete igarotzeko. Bikaina izan zen, 1959an Estatu Batuetako mendebaldeko kostaldearen zati hau teenagerentzat egindako mundua zelako. Erregina bat bezala bizi nintzen, eta pentsatzen nuen: mundua hain desberdina bada, dena ikusi behar dut.

Frantziara itzuli eta aitak galdetu zidan: "Zer egin nahi duzu etorkizunean?". Argi nuen: "Hizkuntzak ikasi nahi ditut". Genevara joan nintzen ikastera eta handik bidaiak egiten hasi nintzen. Lehena Istanbulera izan zen, ia inor Turkiara joaten ez zen garaian. Gero, Ipar Afrikara, erromes bat bezala, Mascarán (Aljeria) jaio nintzelako. Oso mediterranea sentitzen naiz, nire familian begi beltzak dituen bakarra bainaiz (gainerakoek urdinak dituzte). Aljeriako herentzia da.

Ondoren, bidaia luzeagoak egin nituen: Hego Amerikara urtebeterako, eta handik Afrikara. Kontinente osoa igo nuen oinez, garraio publikoa eta noizbait autostopa erabiliz. Behin auto batek hartu ninduen Rhodesian (egungo Zimbabwe), lehoiek gauez ura edatera doazenean



*«Genevara joan nintzen
ikastera eta handik bidaiak
egiten hasi nintzen. Lehena
Istanbulera izan zen, ia inor
Turkiara joaten ez zen
garaian. Gero, Ipar Afrikara,
Hego Amerikara... »*





erabiltzen duten bidean nengoelako, eta nik ez nekien.

Gero lagun batekin joan nintzen autoz Nepalera negua pasatzera. Hamarkada batez mugitu nintzen, dotea agortu zitzaidan arte.

Bai, zure aitak ezkonsariaren dirua aurre-ratu zizulako. Ezkondu beharrean, bidaian inbertitu zenuen?

Voilà! Aitak dotea eman zidan esanez: “Ez ukitu!”. Eta nik pixkanaka-pixkanaka jan nuen.

Nola erabaki zenuen gelditzea eta bidaia liburuen denda bat irekitzea?

Munduan zehar nenbilela konturatu nintzen jende zahar samarra zebilela bidaiatzen, hemen-dik hara, eta neure burua ez nuen autostop egi-ten ikusten ile urdindua nuelarik. Frantzian integratu behar nuen, horretarako herrialderik errazena baitzen, eta herrialdeak ezagutzeko nuen beharrari jarraipena emango zion lanbide bat bilatu.

Baina, orduan, maitasun min bat sendatzeko beste bira bat eman behar izan nion munduari. Urtebete joan nintzen eta, itzuli nintzenean, ondorioztatu nuen bakarrik egon nahi nuela biltegi batean, patroirik eta enplegaturik gabe. Zer izan nintekeen? Aitona bezala, liburu sal-tzailea.

Aitari gutun bat idatzi nion Sri Lankatik, bidaia literaturako liburu denda bat izan nahi nuela esanez (orduan oraindik existitzen ez zen zer-bait) eta ea lagundu ahal zidan galdektuz. Baietz erantzun zidan. Beraz, Parisera itzuli eta be-

Erreportajea abiatzen duen argazkian, Catherine Domain Hendaiaiko Ulysse liburudendan gaur egun. Azpian, Groenlandiara bidaian. Orrialde honetan, Javako Borobodur herrian (Indonesia), 1970ean; Txinan eta Komore irletan.





**«Maitasun min bat
sendatzeko beste bira bat
eman behar izan nion
munduari. Urtebete joan
nintzen eta, itzuli
nintzenean, ondorioztatu
nuen bakarrik egon nahi
nuela biltegi batean»**

rehala proiektua garatzen hasi nintzen: Saint Louis uhartean neukan apartamentu bat berreskuratu eta nire etorkizuna antolatzen hasi nintzen.

Zer da zuretzat bidaia literaturako liburu denda baten arduraduna izatea?

Bidaia gabe bidaiatzen jarraitzeko aukera izan zen eta da, iristen diren bezeroak bidaiatzen duzun bitartean topatzen duzun jendea bezalakoa baita: haiekin adiskidetu zaitezke, informazioa trukatu... eta haiei bidaia liburuak eskaintzen dizkiet.

Hasieran, sarritan ematen nizkien aholkuak, batez ere bakarrik bidaiatzeko beldur zirenei, eta nik esperientzia handia nuen horretan. Horregatik izan dira zoragarriak Ulysseren lehen 20 urteak! Egunero egiten zituen topaketak, liburu berriak deskubritzen zituen, eta gaur egun ere hala jarraitu du.

Bidaiarako zaletasunarekin jarraitu zenuen?

Liburu saltzailea nintzen, baina ez nion bidaia-tzeari utzi, nahiz eta beste era batera egiten hasi. Urtebeteko bidaietan kontinenteak zeharkatzeari utzi nion, adibidez; hala, hilabete bateko



oporraldian joaten hasi nintzen leku jakin batera, hura aztertu eta bertan sakontzeko asmoz. 1973an Somalian edo Cabo Verdeko uharteetan egon nintzen. Adiskidetu egin nintzen itsasontzi baten jabea zen nabigatzaile batekin, eta Pazifi koko irletan ibili ginen uda guztietan, harik eta, 2007an, Hendaia bueltatzea erabaki nuen arte. Bi ahizpa bizi dira hemen, eta niretzat leku guziz familiarra da.

Nola instalatu zenuen Ulysse liburu denda kasino zaharrean?

Lokala libre zegoela adierazten zuen kartel bat paratu zuen bertako higiezin agentzia batek, eta sartu bezain laster banekien niretzat eginda zegoela hemen gauden toki hau.

Ziur argi zeneukala, leku hau oso karismatikoa baita. Atzealdean, hondartzara ematen duen balkoi bat dauka, itsasora eta surfariengana begira. Leku egokia da bidaiarientzat, leku exotikoetara bultzatzen ditu irakurleak?

Bai, bai, zoragarria da. Bi surf klubaren artean nago, jende gazte eta kirolariz inguratuta. Oso atseginak dira, egia esan. Oso pozik nago hemen, eta indarrak lagun ditudan bitartean Ulysse liburu dendarekin aurrera jarraituko dut.

Ezkerrean, Catherine Domain Sirian. Erdian, Koreako tenplu batean. Eta eskuinean, Indonesiako beste batean.

NEW ORLEANS

berpiztuta eta beti bizi





The Cornet
STEAK HOUSE

DELIVERY
AND
SERVICE
Vehicles
ONLY
6AM-11PM



NEW ORLEANS CUISINE



NEW ORLEANS CUISINE

NO LEFT
TURN



AEBetako hegoaldean egiten den edozein bidaiatan geltoki garrantzitsuenetakoa da, eta hala heldu gara gu ere. Alabama iparraldetik hegoaldera bisitatuta eta Mississippiko estatuko kostalde laburra zeharkatuta, iluntzen ari zuen Louisianako seinalea agertu zenean. Berehala autobidea utzi eta Ponchartrain aintziratik doan errepidean 9th Ward-etik sartu gara, Katrina urakanaren ostean urpean geratu eta mundu osoan ezagun bihurtu zen Bederatzigarren Barrutitik.

Testua eta Argazkiak: **Urtzi URRUTIKOETXEA** eta **Getty**

New Orleanseko lehen geltokia, ordea (bakarra, bisitari askorentzat), Frantses Auzunea da. Estatu Batuetako ohiko hirietatik kanpo zauden sentipena dakarkizu auzuneak; oinezkoak nagusi diren hiri batean zabilta, Kuba, Martinika edo Karibeko beste txoko batean bazeunde legez, arkitektura kolonial espainiar zein frantseseko eraikinen artean paseoan. Bi eta hiru solairuko etxeak nabarmentzen dira, burdina forjatuz apaindutako balkoi-galeria dotoreekin... Kaleen ingelesezko errotulazioaren azpian frantsesezko izendapena ere ageri da; hormetan, berriz, zeramikazko plaketan Espainiako garai kolonialean karrikak zeukan izena gogorarazten du.



Erreportaia abiatzen, egunsentia St Peter eta Bourbon Street-en izkinan. Hurrengo orrian, goian, Oak Alley plantation. Behean, Armstrong parkearen sarrera ikusgarria. Lerro hauen gainean, St Louis katedrala, Jackson plazan, hiriko topagune nagusia da. Mississippi ibaia, atzean hiri modernoko etxe garaiak agerian direla.

Parrandan ari diren turistaz betetako Bourbon Street-ek “Calle de Borbón” izena darama, esate baterako.

Ikasleen graduazioetatik 40 edo beste edozein urteurren bete izana ospatzeko elkartzten diren beteranoetara, milaka estatubatuarren jomuga da Bourbon Street, tarteka gustu handirik gabea ere bai. Maison Bourbon jazzeko gune mitikoa kale horretan dago oraindik, baina musika zaleak beste txoko batzuk bilatu ohi ditu, Auzune Frantsesean asko urrundu gabe. Preservation Hall historikoa, kasu.

MISSISSIPPIREN HANDITASUNA St Louis katedraleraino helduta, Jackson plaza zabala irekitzen da Mississippi ibairaino. Turistak, bertakoak, musikari taldeak eta beste jende askoren biltokia da. Decatur kalea igarota dator tranbia, eta ibai zabala, milaka kilometro eginda deltan itsasoratzeko prest, hiria bera itsas-mailatik behera uholdeen mehatxupearan dagoela gogorarazten. Aldameneko azokak frantses kutsua dauka, izenetik hasi (Marché) eta inguruko guneetara. Amaieran jazzaren museoa ageri da. Interesgarria da, zelan ez, baina ezin ahaztu museotik kanpo musika bizi-bizirik dagoen hiri batean gaudela.

Frantses auzunearen mugara iritsi gara izan ere, eta Marigny auzunearen sarrerako Frenchmen kalea sentimenen gozagarri suertatzen da: Bourbon Street inoiz zena irudikatu dugu, egungo neurrigabekeria eta gustu txa-



rreko turismoa kenduta. New Orleanseko zuzeneko musikaz giro atseginan gozatzeko txokoa da Frenchmen, hogeik lokal baino gehiago (The Spotted Cat Music Club ezaguna tartean), egunero daude zuzeneko emanaldiak. Gainerakoan, liburu eta disko dendak, jateko leku atseginak eta mural ederrez jositako lekua da hau. Iritsitakoaren lilurarekin, bada-kigu datozen egunetan ere behin baino gehiagotan ibiliko garela Frenchmen kalean.

Hiriaren kutsu karibetarra arkitekturatik harago doa, eta halaxe bilatu dugu bigarren konexio garrantzitsua: sukaldaritza. Gastronomia maite duenarentzat gutxi baitira Hegoaldeko bazter hauek baino egokiagoak, cajun eta kreole plateretan itsaskiak, arroza, indabak, zapore minak eta postre goxoak tartekatu ohi dira. Po-boy otarrainxkaz betetako ogitarte-koetatik jambalaya indartsura (arroza, barazkiak, haragia edo itsaskia eta pipermina), egunik egun Louisianako platerak ezagutzeko borondatea dakarkigu, sabela beteta eta ahoa bero-bero irtenda ere jatetxetik. Gumbo izenak gorde ditzakeen saltsa, karramarro, piper eta bestelako osasgaiak ezagutzen bakarrik oporraldi oso bat eman liteke, plater bera behin ere errepikatu gabe.

EUSKAL KONEXIOA Louisianako gastronomian badago ezagun egiten zaigun izen bat, New Orleansen sortuta ere Estatu Batuetako leku gehienetan aurki daitekeena: Zatarain. Poydrass kaleko mural handi batek go-

Hurrengo orrian, Franchmen Street-en oso kale-giro bizia dago, eta gauero egoten dira musika-emanaldiak. Frantses auzuneko etxeetako bat, burdina forjatuzko galeriadun balkoiekin. Musika-taldeak, jazz-eko inprobisatzaileak edo sosen bat ateratzeko musikariak plazan eta Frantses Auzuneko kale-izkinetan elkartu ohi dira, egunero-egunero bizitasun handia emanaz auzoari. Frantses auzotik irtenda, Tremé auzuneko Esplanade kalean kreole estiloko etxe ugari daude.



gorarazten du 1889an hemen sortu zela Zatarain's (bai, 's eta guzti), Pasai Donibaneko arbasoak zituen Emile Zatarainen eskutik.

Idahora joandako artzainen eta Floridara etorritako puntisten aurretik, New Orleansek eta inguruko eskualdeak izan zuen euskaldunekin harremanik, eta egun ere nabari da begi-belarriak pixka bat zorroztu eta kaleen izendegiari erreparatuz gero. XVIII. mendean Bilboko portuak lotura zuzena izaten saiatu zen Louisiana Frantziaren eta Espainiaren menpe egon zen urteetan, eta euskal jatorriko gobernadore eta agintari ugari izan zituen lurraldeak, AEBen menpe geratu arte. Hiriaren kanpoaldean Missisippiren ertzean dauden etxaldeetako batzuk ere ageri izan zuten lotura hori, "Roncal" edo "Rienzi-Egania" izenekoak, kasu. Plantation edo etxalde dotore horietara txango ugari antolatu ohi dira New Orleansetik, zalan-tzarik gabe AEB Hegoaldeko eraikin bereizgarrienetakoak dira, baina memoriarik lazgarrienaren adibide ere bai, esklabotzatik eta esklabotzarako altxatutako etxeak izan baitziren.

New Orleansen ezin lapurtar ondarerik ere falta, noski. Hiriko eta eskualdeko izenik ezagunenetakoa, baionar jatorriko kortsario batek emana da: Jean Lafitte. 1803an hiria eta Louisiana AEBetara igaro zirenean, aldame-neko bayou (aintzira) batean "Barataviako erresuma" sortu zuen Lafittek, Pierre anaiarekin batera. Kontrabandoaren gune garrantzitsu bihurtu zen. Egun, behin eta berriz ageri zaigu izena hirian: Lafitte's Blacksmith Shop, esaterako, hiriko eraikinik zaharrenetakoa da, eta Estatu Batuetan erregistrarutako tabernetan ere antigoalenetakoa. 40ko hamarkadan Cafe Lafitte giro bohemioen gunea izan zen, eta herrialdeko gay tabernarik zaharrena dela esaten dute.

HISTORIA ETA NATURA Tabernatik bertatik Louis Armstrong parkearen argiak nabari dira, Treme auzunean sartuta dagoeneko (izen bereko telesail bikaina hirira joan aurreko abiapuntu ezin hobea da. A, eta auzunearen izen ofiziala... Treme-Lafitte da). Jazzaren figurarik garrantzitsuenari omen egiten dion parke atsegina izateaz gain, Congo plaza ere badu bere barnean, izenetik bertatik agerian afrikar lotura. XIX. mendean beltz esklabo zein liberatuen topagunea izan zen, vudua, hoodooa egiten zen, eta brass-band musika bandek jotzeko txokoa ere izan zen. Jazzaren jaiotzarako ezinbesteko lekua da Congo plaza.

Baina lapurtar kortsarioaren izena inon gorde bada, Jean Lafitte National Historical Park and Preserve gune naturalean da. New Orleanseko leku askotan aurki daitezke hiriaren inguruko bayou eta ibaiadarretan ontziz txangoak egiteko aukerak, baina norbera ere erraz asko joan daiteke Jean Lafitte parkera, autoa izanez gero. Doakoa da sarrera, eta hiri ezin bereziago honen kontrapuntua jartzen du, Louisianako paisaia murgilduz, hitzaren esangura betean, paduren gainetik eraikitako egurrezko pasabideetan txango ezin hobea da. Kontu pixka batekin eta errespetuz ibili behar da, hori bai, gutxien espero dugunean aligatore handiren bat topatzeko bide bazterrean. Hiria ez dago urrun, tartea txalupa turistikoen motorren hotsa entzuten da, baina era berean parkean zeure erritmora zoaz Louisianako ikuspegiez gozatuz. Itzuleran New Orleans beti bezain bizi egongo da, musika lagun kaleetan berriz galtzeko.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA HELDU

Louis Armstrong nazioarteko aireportuak konexioak ditu AEBetako hiri nagusiekin, baita Kanada, Mexiko eta Amerika Erdialdearekin ere, baina Londres da Europako konexio bakarra. Lurrez etorrira, AEBetako hegoaldeko ibilbide ugaritako geltoki garrantzitsu da: ipar-ekialdetik Georgia eta Alabamatik, iparraldean Mississippi ibaian behera Memphis hiritik, eta Texastik, mendebaldetik etorritz gero.

MUGITZEKO

Oinez ibiltzeko hiri egokia da, erdigunean mugituz gero, Frantses Auzunean, Tremen, Marignyn edo CBDn, beharbada tranbia hartuta behin edo behin. Urrunagoko auzuneetara joateko, Ponchartrain lakuraino iristeko edo Jean Lafitte naturagunea bisitatzeko, garraio publiko gutxi dago, eta errazagoa da norbere autoan edo txangoren batean izena emanda.

OSTATUA

AEBetako lekurik bisitatuenetakoa da New Orleans, eta eskaintza zabala dago. Edozelan ere, urteko sasoi berezietan, inauterietako Mardi Gras-en inguruan batez ere, bisitari kopuruak itzel egiten du gora, eta prezioak ere berdin garestitzen dira, baita hiriko kanpoaldean dauden ostatueta ere.

ARTIKUTZA

Udazken zaparrada

Testua eta aegazkiak **Andoni URBISTONDO**

Artikutza Nafarroa iparraldeko txoko magikoa da. Iberiar penintsulako lekurik hezeena da, eta udazken bukaeran pagoetatik jausitako hosto zaparrada ikaragarria da bertan. Hamahiru kilometroko ibilbide erosoan leku hori bustitzen duten dozenaka erreka, Donostiak mende bat atzera erositako Artikutzako eraikinak, eta eskualdeko historia eta natura aberatsaren berri zehatz jakiteko aukera izango dugu.







Artikutza 3.700 hektareako eremu babestua da. Nafarroako Gobernuak Babes Bereziko Gune moduan izendatua du, Natura 2000 sarearen barne, eta horri esker, bere zuhaitzi, erreka, fauna eta landaredia erabat babestuta daude. Nafarroa esan dugu, Artikutza Goizuetako lurretan dagoelako geografikoki. Administrazio mailan, ordea, Artikutza Donostiako Udalaren jabetzakoa da. 1919an erosi zion lur eremua Donostiako Udalak Goizuetakoari, Gipuzkoako hiriburuak behar zuen ur gezaren premiaz ohartuta. Enobietara presa eraiki zuen aurrena, baina harekin nahikoa ez, eta Añarbe urtegi erraldoia eraiki zuten ondoren, 1975ean. Añarbek 37,279 Hm³-ko gaitasuna du. Alegia, 37.279.000.000 litro ur, eta Artikutzan jausten den euri prezipitazio handiari esker bete samar egoten da ia beti. Ur falta baino ur sobera izaten da sarri Añarben, eta ura Urumea ibairantz askatzeko ateak ireki behar izaten dituzte tarteka.

Ura, zuhaitzak eta historia. Horiek dira Artikutzako altxorak. Uraren garrantziaz bidean jabetzen da oinezkoa, zuhaitzekin gertatzen den bezala. Artikutzan sei milioi zuhaitz daude. Sei milioi, eskualdeak naturan duen garrantzia



ulertzeko. Kopuru biribilagoa: Artikutzako eremu osoaren %90 zuhaitzia da. Pagoak, asko, erdia pasatxo, baina haritza eta hagina ere ohikoak dira.

Deigarria da gizakiak Artikutzako zuhaitzian daukan interbentzio eskasa. Xendak trabatzen dituzten adarrak edo enborrak kentzen dituzte langileek, baina bestelakoan prozesu naturalak agintzen du. Hiltzen edo usteltzen diren zuhaitzak prozesu naturalaren bitartez desagertzen dira. Bidean pago benetan erraldoiak ikus daitezke, baina txango bukaeran harrituko gara gehien, begien aurrean agertuko zaigun ikuskizunarekin. 2019an ziklogenesi leherkor batek Artikutzako zuhaitztiko %12 txikitu zuen, dozenaka urteko zuhaitzak errotik atera, 120 kilometro orduko haizeteen ondorioz. Xendak garbi daude, eta alboetan diametro ikaragarriko enbor eta zuztar festa ikusiko du bisitariak. Horiek guztiak modu naturalean desagertu edo birsortuko dira.

Artikutza eremu babestua da. Autoz sartzeko Donostiako Udalaren baimena behar da derrigor, urteko egun batean izan ezik: abuztuaren 28a, San Agustin eguna. Orduan festa handia izaten da Artikutzan. Urteko beste egun guztietan, ordea, oinezkoek bidea libre dute, eta bizikleta gainekoek

Erreportajea irekitzen duen orrian Artikutzako ikuspegia. Bailarako sakonean Artikutzako aterpea ikusten da. Orri honetako argazkietan, Artikutzako pago eta haritz basoak. Sei milioi zuhaitz daude bertan, eta gizakiaren esku hartzerik gabe bizi dira. Beheko orriko bi argazkietan, ezkerrean, Enobietako presa zaharra. Donostia urez hornitzeko eraiki zen, baina ondoren hustu, Añarbe urtegia eraikitzeko. Eskuinean, San Agustin eliza, Artikutzako patroia.



**Artikutza
geografikoki
Nafarroa da,
Goizuetako
lurretan dago,
baina
administratiboki
Donostiak
kudeatzen du,
1919an lur sailak
erosi zizkiolako
Goizuetako Udalari**

ere bai, baimendutako bideetan barrena ibiltzen badira. Artikutza ezagutzeko modu polita da Exkax aparkalekuan hasi eta bukatzen den txangoa: 13 kilometro eta 400 bat metroko desnibel metatua. Exkax aparkalekuan utzi behar da autoa, eta martxari ekin, PR NA 124 xenda hartuz, aparkalekutik kilometro erdira.

Artikutzako etxe multzora bidean, beti beherantz, hosto alfonbra baten gainean ibiliko gara, erreka ugari zeharkatuz. Haien izen bitxiak mapan ikustea ere gauza polita da: Pixatoki, Eskaspe, Argaratako erreka... Ordu erdiko bidea egin ondoren, Erroiarriko ur jauziraino iristen da xenda, 20-25 metroko ur jauzi ikusgarri. Behatoki bat ere badu; komeni da banaka edo binaka hurbiltzea, malkarra gertu baitauka.

Ur jauzia atzean utzi eta berehala Enobietako presara iritsiko gara. Enobietak izan zen Donostia urez hornitzeko eraiki zen lehen urmaela, baina XX. mendeko erdialdean agerikoa izan zen ez zela nahikoa izango, eta Añarbe eraikitzea lehenetsi zen. Azken urteetan Enobietako presa kentzeko lanak egin dira, errekaetako bere jatorrizko bidea berreskuratu eta bertako ekosistema eta fauna bere kabuz birsortu dadin. Enobietako ertz batetik bost minutuan iritsiko gara Artikutza auzora, 315 metrora.

PLANOBURU ETA MEATEGI LANAK Artikutzan bada sabela berdintzeko makinarik, motxilan zer jan edo edan ez badugu. Txanponak eraman. Exkax aterpera daraman bidean gora, berehala hartuko dugu izen bera era-



kusten duen mendi bidea. Gorantz egiten du nabarmen ordu erditxo batean, eta halako batean Artikutzak iraganean izan zuen garrantzia erakusten duen tokira iritsiko gara: Planoburu tren geltokia. Izan ere, eskualde hartan ikatza, burdina eta lur zuria atera ziren lurraren errailetatik, eta haiek guztiak Lezoko tren geltokiraino garraiatzen ziren.

Garraio sistema benetan ikusgarria izan zen, XX. mende hasieraz ari garela aintzat hartuta. 1905 eta 1918 urteen artean Penintsulako meatzaritza bide luzeena izan zen Artikutzakoa. 30 kilometro denera, eta egunean lau trenek egiten zuten joan-etorria: Elamako meatzetan hasi eta Lezo-Errenterian buka. Artikutza zuloan sartuta dago, 800-1.000 metroko mendiak inguruan, eta garraio horretan desnibel handiko tarteak libratu behar izan zituzten. Trenean ezin, noski, eta uraren bidez, sistema hidrauliko baten bitartez garraiatzen ziren mineralez beteta zeuden bagoiak. Bagoi zahar zenbait eta azalpen interesgarriak topatuko ditu bisitariak Planoburu gunean.

Trenbidea izan zen bide beretik egiten da Exkax aparkalekurainoko itzulerara. Ziklogenesi leherkorrak eragindako triskantza gertutik ezagutu aurretik, begiratoki eder bat eskainiko digu bideak. Artikutzako aterpea ikusiko dugu goitik, eta gainean Izu, Loitzate, Ekaitza eta Bortzirietako beste gailur batzuekin batera. PR NA 124 bidegurutzera iristearekin bat sumatuko dugu guardaren etxea, eta autoa utzi dugun aparkalekua, Bianditz mendiaren magalean.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Artikutza Nafarroa da geografikoki, Goizuetako lurretan baitago. Administrazio mailan, ordea, Donostiako Udalaren jabetzakoa da. Gipuzkoako hiriburuko Udalak erositako lurra dira, 1919an, hiria ur gezaz hornitzeko. Artikutzak Gipuzkoako Oiartzun, eta Nafarroako Lesaka, Arantza, Zubieta eta Beintza-Labaien udalerriekin egiten du muga.

NOLA IRITSI

Bi bide daude, bata Goizuetatik, eta bestea Oiartzundik, baina Gipuzkoatik doana erabiltzen da ia erabat. Herri horretako Karrika auzoan gora Bianditz mendatea pasatu behar da, 12 kilometroko bidea. Gaina igaro eta kilometro pasatxora dago Exkax aterpetxea, 650 metroko altueran. Oiartzun Donostiatik 10 kilometro eskasera dago.

EZAUGARRIAK

Iberiar penintsulako lekuri hezeena da Artikutza, 2.300 litro euri jausten da urteko. 3.700 hektarea da zabal, %90 basoa, eta sei milioi zuhaitz inguru ditu. Añarbeko urtegia dago bertan, Donostia eta eskualdea hornitzen dituen 37 Hm3ko urtegi erraldoia. Ibilbidea eroso da, hosto alfonbra batean barrena, eta erreka eta pagoz inguratua uneoro.

UR-EZTANDA

Euskal Herriko zazpi ur- jauzitara bidaia

Testua: **Gaizka Martinez** Argazkiak: **Getty Images**

Munduko txoko guztietan, kultura guztietan, izan dira maitatuak eta sakratuak ur-jauziak. Naturaren eta bizitzaren emari etengabearen gurtza. Azken hamarkadetako lehorte handien ostean, udazkeneko eta neguko euriek berpiztu dituzten eta gure herrian bertan kokaturik diren izaki misteriotsu horiei omenaldia egin nahi diegu. Euskal Herriko ur-jauziek beraiek erraz bezain liluragarriak diren ibilbideak paratu baitizkigute haietara hurbil gaitezen. Hemen, horietako zazpi.



1. IRUSTA EDO AITZONDOKO UR-JAUZIA (GIPUZKOA)

Aiako Harria parke naturalean, Ibarla errekan dago ur-jauzi hau, Irunen. Azkain mendiaren magaleko granitozko harkaitzetatik ehun bat metrotik jausten da ura, eta urtaroaren arabera aldakorra da emaria. Ibilbide zirkular batek hurbiltzen gaitu ur-jauziraino, Irundik bertatik hasiera duela, Ola sagardotegitik zehazkiago. XIII. mendean Arantzeteko burdinola izan zen eraikin hau. Aldirietan, Irugurutzetako labek aurkitzen ahal dira; han birrintzen zuten inguruotan ustiatzen zuten burdin karbonatoa.

2. BELABARTZE (NAFARROA)

Erronkariko bailaran dago Belabartzeko ur-jauzia. Izaba herritik has daiteke edonork egin dezakeen hamar kilometroko ibilbide zirkularra. Otsindunduako zubiraino, bideak inguru eder eta magikoa es-



kaintzen digu, baso hostotsu baten artetik. Zubia igaro eta berehala aurkituko dugu Iboneko kobazuloa, zubi erromatar batekin batera, bide honek gordetzen duen bertze oparietako bat. Ezkaurre haitzaren itzalpean ibiliko gara eta Piriñoetako tontor batzuen ikuspegi eder askoak izango ditugu.


3. XORROXIN (NAFARROA) Sorgin eta laminen istorio mitologikoen sorgunea da Baztan eskualdeko Xorroxin ur-jauzia. Kondairak dioenez, lamina baten eta aldamenen den Erratzu herriko artzain baten arteko desamodio istorio batean du jatorria, eta laminarengan eragin zituen malkoak dira orain ibaiak eramaten dituenak. Amaiurren edo Erratzun bertan paratutako aparkalekuan utzi behar da autoa eta, sartzeko, doaneko erreserba egin behar da aldeztu aurretik (www.baztanerreserbak.eus). Xendazaletasuna eta naturazaletasuna ederki batzen dituen tokia dugu hau. Zazpi kilometroko ibilbide heze, arin eta ederra eskaintzen du Iñarbegiko errekarren bazterretik.



4. NERBIOI EDO DELIKA ETA GOIURI (ARABA) Iberiar penintsulako ur-jauzirik garaiena (222 metro) Nerbioi ibaiaren sorburuan da: Delikakoa. Berberana (Burgos) udalerraren mugan, Kuartangotik (Araba) Amurriora salto egiten du urak hemen, Gibixo mendilerroaren eta Santiago mendiaren artean. Elur eta eurite garaiak probestu behar dira bere goreneko puntuan ikusteko, sarritan ez baitu urik. Inguruetan ibilaldi erraz batzuk egiteko aukera dago. Gomendatuena, Untza herritik hasten dena (bost kilometro guztiz lauak), zeinak Delikako arroila osoa ferekatzen baitu. Handik hamabost kilometrora Goiuriko ur-jauzia deritzona dugu, Olardo errekan, Urkabustaizen (Araba). Aurrekoa bezala, lehor egoten da udan, baina udaberri eta udazken partean ura ekartzen du.

5. BELAUSTEGI (BIZKAIA) Bizkaian, Gortzeiako parke naturalaren erdian, koniferoz eta pagoz inguraturik dago 30 metroko saltoa egiten duen Belaustegiko ur-jauzia. Udaberrian landaretza berde bizi batek estalitako horma-





tik jausten da ura eta, Ibarra auzotik irtenda, hiru ordu laurdeneko pasiera erraz batean iristen ahal da seinalaztatu gabeko ibilbidetik. Porlanezko bide malkartsu bat igo eta han autoa aparkatu ostean, ibaiaren magaletik doa bidea, eta beste ur-jauzi txikiago batzuk hartzen ditu.

6. UREDERRA (NAFARROA) Euskal Herriko ur-jauzi ezagun eta bisitatuenen artean da Lizarraldeko Urederra. Izena ez du debaldekoa, izan ere, ur garden eta urdin turkesa koloreko zenbait jauzi eta putzu biltzen ditu pagoz inguraturiko bazter idiliko honek. Bazterrak bere horretan mantentzearen, 500 pertsona baino ez ditu hartzen egunean. Horretarako, www.urederra.amescoa.com webean data gorde eta Bakedano herriko aparkalekua ordaindu behar da (autoek, 5€; motorrek, 2€). Erreserba naturalerako sarrera bakar honetan hasten da joan-etorrian sei kilometro dituen oinezkoentzako seinalaztatutako bidea. Xendrak egurrezko pasabide eta eskailerekin egokituta

daude, eta eroso da edozein adineko bisitari rentzat. Amaieran ibaiaren benetako jaiotza daukagu zain, Pilatosen Balkoia deritzon arroka-ebakiduratik sortzen den ur-jauzi zirraragarria.

7. KAKUETA (ZUBEROA) Pirinioetako mendebaldean, Zuberoako Urdatx edo Santa Grazi herrian dagoen izen bereko arrolako ur-jauzia da Kakuetakoa. 21 metroko altuera du eta mendi barrutik isurtzen da ura, Uhaitxa ibaiak 15.000 urtez marraskatutako bi kilometroko luzera eta puntu batzuetan 350 metroko altuera duen arrolara. Ur-jauzia bertatik bertara ikusteko aukera dago, eta adin guztietako pertsonentzat egokia den txangoa egin daiteke inguruetan, aintzirako koba (estalaktitekin eta estalagmitekin), landare ugari, tunelak, bidezidorrak eta zubiak igaro behar direla... Urdatx udalerrira iritsi baino lehen dago hartu beharreko irteera. Han ordaindu behar da sarrera eta, segurtasun kontuak direla-eta, azaroaren 15etik martxoaren 15era bitartean hertsirik da.



Iruñea Beltza, espioitza eta krimenaren munduan barna

URTARRILAK 16-23

Iruñea Beltzaren bederatzigarren edizioak, urtarrilaren 16tik 21era Nafarroako hiriburua genero beltzaren erdigune bihurtuko duen literatur hitzorduak, Norvegia du oraingoan herrialde gonbidatua, beste arte batzuetan oinarritzen den krimen, ikerketa eta espioi giroan, hala nola zineman, antzerkian edo gastronomian.

Hala aurreratu zuen bere zuzendari Susana Rodriguez Lezaun nobelagileak, eta adierazi zuen «hitzordu literario eta kriminal» berri honetan «bazkide, laguntzaile eta lagun» gehiagok parte hartzen dutela «urtetik urtera

handiagoa izan dadin eta jende gehiagorengana irits dadin, literatura eta genero hori sustatzeko eta zabal-tzeko xedearekin».

Intrigaz, krimenez, espioiz eta psikopataz beteriko sei jardunaldi izango dira, eta krimenen adibideak eta haien ikerketa-prozesuak erakusten dituen “El crimen a escena” ezinbesteko espazioa jarriko dute martxan.

Ekitaldien egoitza nagusia Baluarte izango da, baina badira urtero hitzordu batzuk hartzen dituzten lekuak. «Lehen mailako idazle norvegiar bat, Jørn Lier Horst eta Helene Flood, etorriko dira, eta munduko herrialde la-saienetak batek hain istorio beltzak nola sor ditzakeen azalduko dute», aurreratu zuten.

Azpeitian izango da 2023ko Bertso Eguna: egun osoko plana martxan

URTARRILAK 28

Bertsozale Elkarteak aditzera eman zuenez, 2018tik ibiltaria da Bertso Eguna, urtero aldatzen da lekuz, eta 2023koa Azpeitian egingo da udalaren eta herriko zenbait elkarteren laguntzarekin. Egun osoko plana antolatzen ari dira, pandemia aurretik egin ohi zen bezala. Horrela, 11.30ean elkartu eta kalez kaleko poteoa egingo da, libreko bertso saio irekiekin.

Ondoren, 14.30ean, bertso bazkariak egingo dira Oilo Soro, Zulo Zabala, Ziripot, Oilagorra eta Txalintxo elkartean. Gainera, gustu guztiak asetzeko moduan, mota ezberdineko bertso saioa eskainiko da elkarte bakoitzean: libreko saioak, bertso saio musikatuak edo gaiekin eta bertso jarriekin osatutakoak.

Arratsaldean poteoa izango da, eta 21.00etan afaria eskainiko da Elikagunean. Afalostean izango da bertso ekitaldia Elikagunean bertan.



«EL DESCUBRIMIENTO DE LA TUMBA DE TUT-ANKH-AMON», 100 URTEREN ONDOREN

«Sei denboraldi eman genituen (Erregeen Haranean) indusketak egiten... ezer aurkitu gabe, eta induskatzaile batek bakarrik daki hori zein etsigarria izan daitekeen... Harana uzteko prestatzen ari ginen eta etsipenezko azken ahaleginean gure ametsik ausartean gaitzen zituen aurkikuntza bat egin genuen».

Ehun urte bete dira Tut-Ankh-Amonen hilobia Howard Carter egiptologoak aurkitu zuenetik, eta, edizio berri honetan, berak kontatzen digu hito honen istorioa. Gogora dezagun aurkikuntzak 1920ko hamarkada “zoriontsuan” gizar-tean izandako eragina.

El descubrimiento de la tumba de Tut-ankh-amon
Howard Carter
Marta Perez (itzulpena)
LAERTES, 2022
200 orrialde. Gaztelania

Txotx denboraldia urtarrilaren 11n abiatuko da: sagardo berriaz gozatzeko aukera paregabea

URTARRILAK 11

Sagardo Berriaren Eguna 2023 ospatuko da Astigarragako Alorrenea sagardotegian, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta. “Txotx 2023” denboraldi berriaren hasieran sagardogintzak urtero egiten dituen ekitaldiak izango dira.

Horrela, 2022ko uztaren eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenen ezaugarriak aurkeztuko dira, ondoren edizio honetako gonbidatuak sagarrondo bat landatzeko ekitaldi sinbolikoa egiteko.



Kome

leizeetako azken biztanleak





Testua: **Gaizka MARTINEZ** Argazkiak: **Marco LONGARI/AFP**

Kobazulo baten ilunpean, 67 urteko Mamotonosi Ntefane animalia-larru bat astintzen ari da, arreta handiz. Lesothoko haitzuloetako azken biztanleetako bat da. Duela bi mende kanibaletatik ihes egiteko bertan babestu zirenen gotorlekuak dira, Afrikako hegoaldeko herrialde bitxi honetan kokatuta daudenak. 1.800 metro baino gehiagoko altueran, Hegoafrikako erresuma txiki honetako mendietan, goizeko lanbroaren artean artilezko estalki luzeekin estalitako artzain batzuk baino ez dira ikusten.

XIX. mendearen hasieratik, ehunka pertsona bizi dira Lesothoko Komeko kobazuloetan, horien artean familia batzuk, 1966an Erresuma Batutik independizatu zen antzinako protektoratu honen mugak ezarri zituzten tribuen ondorengoak. Keak ihes egiten du harriren batetik gosaltzeko orduan: ezkutalekua da, Maseru hiriburutik 50 kilometrora, eta ondo zainduta dago. Egurraren gainean, marmita beltz batek ohiko «papa» irakiten



du, arto crema bat, hain zuzen ere. «Hemen ondo nago. Gure barazkiak lantzen ditugu eta otoitz egiteko denbora daukat», dio Mamotonosi Ntefanek, arrosarioa lepoan duela.

Landa-herrialde honetako 2,2 milioi biztanleetatik gehienak nekazaritza dute ogibide oraindik. Artoa, basartoa eta lekak landatzen dituzte. Baina oilategiko hegaztiak eta abereak ere badaude. Biztanle batzuek, adinekoek, Estatuaren laguntza jasotzen dute. Besteek diru pixka bat irabazten dute beren leizeak turista urriei erakutsiz.

Haitzuloa harri basaltikoari atxikitako zenbait etxebizitza biribiletan banatuta dago. Hormak eta zoruak, buztinezko eta animalien gorotzezko nahasketak batez eginda daude. Behin eta berriz zaharberritu behar dira. Altxariak oinarritzakoak dira: lurtean jarritako behi-larru batek ohe gisa balio du eta ura (ondoko herritik ateratakoa) plastikozko eltze eta kubetetan dago. Mamotonosi Ntefanek metalezko kutxatxo batean gorderiko xaboi txiki bate-



kin garbitzen du gorputza. «Ez dago ez elektrizitaterik ez hozkailurik, baina gure etxea da, gure historia», esan du Kabelo Komek, 44 urteko gizonak. Tokiari izena eman zion lehen bidaiariaren ondorengoa da.

Garai hartan, Afrika australak lehortea handia jasan zuen, artaldeak suntsitu eta zerealen erreserbak agortu zituen. Beren transkripzioetan, herrialdea kristautu zuten misiolariak kanibalismoaren hondamenak deskribatzen dituzte. Sothoak, herrialdeko etnia nagusiko kideak, azkenean elkartu egin ziren, beren etxaldeak lur emankorretan ezartzea erabaki zuten kolono europarrak iritsi eta Hegoafrikako zulu gerlarien erasoaren ondoren, ganadua eta elikagaiak bilatzeko.

Mamatsaseng Khutsoane irakaslea da eta lanak mendiko herri batean etxe bat eraikitzeak aukera eman zion, haitzuloen gainean. Bilobekin bazkaltzen du bertan. Urrunean, ganaduaren zintzarri hotsa entzuten da, Komeko azken biztalen ahotsekin nahasten den soinua.

Goian, Kome haitzuloak airetik begiratuta, Berea barrutian, Lesothon. Behean, haitzuloetako biztanleak, beren etxebizitzaren atarian. Leizeak harri basaltikoei atxikita daude.

KAKTUSAK, KLIMA ALDAKETAREN MEHATXUPEAN

Saguaro edo sahuaro izenarekin eza-
gutua, Sonorako basamortuan bizi
da Ameriketako Estatu Batuetako
kaktusik handiena, herrialdeko
hego-mendebaldearen ikur ikonikoa.

Kaktusak klima aldaketarekin lo-
tutako hainbat arazoren mehatxu-
pean daude, larre inbaditzaileek
eragindako baso suteak sufritzeko
arrisku handiagoa barne. Arizonako
Saguaro Parke Nazionala monitori-
zatzen duten zientzialariek heriotza
tasa handiagoa ikusi dute saguaro
gazteen artean, tenperatura altua-
goetan, montzoietako euri jasetan
eta lehorte luzeetan. 150 eta 200 urte
bitartean bizi dira eta 50 oin baino
gehiagoko altuerara iristen dira kak-
tus berezi hauek. Amir MAKAR



BAINU HOTZ- HOTZA, ERABAT IZOZTUTA GERATU AURRETIK

2022ko azaroaren 30ean ateratako
aireko argazki honek neguko igerike-
taren zale sutsu bat erakusten du
Shenyangen, Txinako ipar-ekialdeko
Liaoning probintzian, partzialki izoz-
tutako laku batean.

Asiako erraldoian kokatutako lu-
rralde honi ez zaio inoiz bizia falta,
ezta negu luzean ere. Elur pistetatik
ur termaletara, Liaoningek esperien-
tzia harrigarriak eskaintzen ditu.

Urtean zehar, tenperatura, oro har,
-17 gradutik 29 gradura aldatzen da,
eta oso gutxitan jaisten da -23 gradu-
tik behera. Udan, ez du 32 gradutik
gora egiten. STR



KROKODILOAK ZABOR ARTEAN, COSTA RICAN

Krokodiloak zabor artean igerian Tarcoles ibaian, Erdialdeko Amerikako ibairik kutsatuenean, San Josetik 97 kilometrora, hegomendebaldean. Costa Ricako Ozeano Barearen kostaldeko mangladietan pneumatiko eta plastikoak isurtzen dira, hango ur uherretan bizi diren krokodiloek aztoraezin dirauren bitartean.

Amerikako 2.000 krokodilo inguru (*Crocodylus acutus*) Tarcoles ibaian bizi dira. Erdialdeko Mendikatean jaiotzen da ibaia, San Josetik gertu. Duela hamarkada batzuetatik hona ur beltzak isurtzen dira bertan, eta itsasoratzen den eremuko ekosistemaren parte bihurtzen dira. Ezequiel BECERRA



INOIZ GONBIDATURIK IZAN EZ DUEN IGLU-HOTELA

Igloo City, Cantwellen, Alaskako erakarpen turistikorik bixiena da. Urruneko eskualde batean kokatua, egia esan, ez zituen atea ireki ere egin, ez baitzen inoiz amaitu. 1970eko hamarkadan eraiki zen, baina ezin izan zituen garai hartako eraikuntza kodeak bete. Iglua eraikin abandonatua da gaur egun, eta jakin-mina pizten du turisten artean. Patrick T. FALLON



MAGH MELA OSPATZEKO ZUBI FLOTAGARRIA

Indiako langile hauek zubi flotagarri bat eraiki dute, Prayagrajeko Magh Mela hindu azoka prestatzeko xedearekin. Jaialdia ibai sakratuetako uretan bainu erritual bat ematean datza, baina merkataritza komunitarioaren ospakizun bat ere bada, azoka, hitzaldi erlijioso eta bazkari komunitarioekin eta, batez ere, entretenimendu handiarekin. Sanjai KANOJIA

KONKISTARI BURU EGIN ZIOTEN AZKEN MAIAK

Tayasal aztarnategi arkeologikoan aurkitutako piezak, Flores udalerrian, Peten departamenduan, Guatemalako Hiritik 500 kilometrora, iparraldean. Zeramikazko piezak, giza ehorzketak eta Espainiako arkabuzen berunezko balak aurkitu zituzten arkeologoek indusketa proiektu berri honetan, europarren konkistari buru egin zion azken maien hirian, hain zuzen ere.

Tokiko agintarien arabera, indusketa proiektu hau aurtengo ekainean hasi zen, «Tayasaleko postu aurreratua gehiago ulertzeko asmoz, non maiak lehen aldiz K.a. 900. urtean finkatu ziren».

Tayasal hiria garai Aurreklasikoan loratu zen, Suarlin Cordova arkeologoaren arabera. Garai hartan, «itzaeen leku» bezala ezagutzen zen, maiak egungo Nojpeten uhartean izan zuten okupazio luzeagatik. Adituen arabera, eskualdea izan zen 1697an espainolen konkistari amore eman zion azkena.

Peten Itza lakuak inguratua, Tayasal hiriak hesi natural bat zuen beste maien eta europar kolonizatzaileen inbasioen aurka defendatzeko. Egitura batzuk 30 metroko altueran daude oraindik. Carlos ALONZO



GANGESEN HASIERA: IZOTZ KORRONTE SAKRATUA

2022ko irailaren 15ean eginiko argazki honetan, indiar fededunak Uttarakhandeko Gangotri hiriko tenplua bisitatzeko ilaran daude.

Himalaiaren goialdean, non Ganges ahaltsua oraindik izotz korronte hotza den, langileek bi-doiak betetzen dituzte haren ur sakratuekin, India osoko hinduen artean banatzeko helburuarekin. Ganges ibaiaren 2.510 kilometroko ibilbidea Gangotri glaziarrean hasten da. Money SHARMA

TUTANKAMON, MUGARRITIK EHUN URTERA

Turistak Tutankamon Antzinako Egiptoko Erresuma Berriko faraoiaren urrezko sarkofago trinkoari begira daude, faraoiari eskainitako galerian, Egiptoko Museoan, Kairoko erdialdean.

Tutankamon faraoi egiptoarren ehorzlekua munduko hilobirik ospetsuena da, eta duela 100 urte egindako aurkikuntza garai guztietako aurkikuntza arkeologiko handienen artean dago.

Faraoiaren momia, 3.300 urteko antzinatasuna duena, sarkofagotik atera eta historian lehen aldiz jendaurrean jarri zen 2007an. Amir MAKAR



SUDANGO RASTAFARIAK, MISTIZISMOTIK URRUN

Sudango Kahrtum hiriburuan rastafari erakusketa bat. Jamaikan Haile Selassie Etiopiako enperadorea mesiasatzat hartzen badute ere, Sudanen rastafariena mugimendu mistikoa baino gehiago, kulturala izan da. Omar al-Baxirren gobernu autokratikoaren pean, klandestinitatean bizi izan ziren rastafariak. Ashraf SHAZLY



MARRAZOAREN ARRANTZA, NEGOZIO MILIOIDUNA

Marrazo hegatsak arrantza portu batean, Banda Aceh hirian, Indonesian. Merkataritzari buruzko munduko goi bilera bateko ordezkariak 50 marrazo espezie gehiago babestea onartu dute aurten, eta neurri horrek hegatsen merkataritza nabarmen murriztu dezake. Ehun milioi marrazo hiltzen dira urtero arrantzaren ondorioz. Chaiddeer MAHYUDDIN

A full-page photograph of a mountain valley. In the foreground, a wide, light-colored gravel path leads from the bottom center towards the middle ground. The path is flanked by lush green grass and scattered dark rocks. In the middle ground, a small village with several buildings is nestled in the valley. A prominent church with a dark, pointed roof stands out among the houses. The background is dominated by steep, rugged mountains with patches of green and grey rock. The sky is blue with scattered white clouds. Bright sunlight from the upper right corner creates a strong lens flare effect, with rays of light streaming across the sky and illuminating the scene.

Lurralde
berrietara
goaz

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz